

Badaezpada

Isabel: Bihar hasiko da musika-jaialdia, eta sartu ditut gauza batzuk motxilan, baina ziur zeozer ahaztu zaidala. Zuek askotan egon zarete; zer eraman behar dut?

Oihan: Ba, hasteko, nik gomendatzen dizut sarrerak inprimatuta eramatea. Ez da beti egoten QRa irakurtzeko makina.

Isabel: Kontxo, eskerrak esan didazun! Listo, apuntatu dut zerrendan.

Xabi: Han zarata handia egoten da beti. Horregatik, komeni zaizu belarrietarako tapoiak eramatea.

Isabel: Bai, tapoiak sartu ditut, eskerrik asko!

Xabi: Eta hartu duzu plastikozko zorroa?

Isabel: Zer zorro?

Xabi: Eraman plastikozko zorro bat mugikorra babesteko: euria egiten badu, eskertuko duzu!

Isabel: Ados!

Oihan: Bai, eta zu ez bustitzea ere komeni da: nik zira fin bat eramatea gomendatzen dizut!

Isabel: Bai, hori hartu dut!

Xabi: Ondo! Beste gauza bat esango dizut: lainotuta badago, berdin dio: ez ahaztu eguzkitako krema ematea! Ni askotan erre naiz egun lainotuetan!

Isabel: Ajam.

Oihan: Zenbat lagun zoazte?

Isabel: Sei lagun!

Oihan: Ba, orduan, komeni zaizue elkartzeko gune bat zehaztea: norbait galtzen bada, han elkartzeko zarete!

Xabi: Aholku ona, Oihan! Han oso erraza da galtzea... Nik zapatak ere galdu ditut! Isabel, eraman itzazu oinetako itxiak, e?

Oihan: A! Eta ez ahaztu bateria eramangarria eramatea: komuneko entxufeak okupatuta egoten dira beti!

Isabel: Motxilan sartu dudan lehen gauza hori izan da! Kar-kar-kar!

Xabi: Ondo prestatu duzu motxila! Baina ziur nago hau ez duzula sartu: zinta itsasgarria!

Isabel: Zinta itsasgarria? Zertarako?

Xabi: Zuk hartu! Ondo etorriko zaizu badaezpada ondoan edukitzea: jaialdietan edozer gauza gerta daiteke!